

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

**Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakariaren 2018ko apirilaren 23an hartutako erabakiaren laburpena: Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako jardueretan parte hartzen duten ikasleen garraioa diruz laguntzeko deialdia. 2018ko urtarriletik abendura**

BDNS (ildentifikatzailea): 397916

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> kontsulta daiteke.

#### **Lehena. Onuradunak**

Ondoko betebeharrak betetzen dituzten ikastetxeek eskuratu ahal izango dituzte garraiorako laguntza hauek:

Ikastetxea Gasteizko udalerrian kokatua egotea edo, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udalerrian erroldatua egotea.

Ikasle guztiek edo horietako batzuek 2018ko urtarriletik abendura bitartean Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak ikasleentzat antolatu dituen jardueretako batean parte hartu izana.

Jarduera horietan parte hartzeko garraio kolektiboren bat erabili behar izana, ikasleak ikastetxetik jarduera burutu den tokira eta/edo handik ikastetxera eramateko.

#### **Bigarrena. Helburua**

Gasteizko ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea, haien ikasleak Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako jardueretara eramateko

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakariaren 2018ko apirilaren 23an egindako ohiko bilkuran onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiari 8.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:**

Ikastetxeek eskaerak aurkeztu beharko dituzte Udal Erregistroan edo Udal Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan 2018ko abenduaren 14a baino lehen.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko apirilaren 23an

*Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren presidentea*  
**IÑAKI PRUSILLA MUÑOZ**